

# AURKEZPENA

Ba al dakizue zenbat litro ur alferrik galtzen diren eguneko etxe bakoitzean? Hamar? Berrogeita hamar? Ehun? Hainbat erakundeek diotenez, batez bestez 227 litro ur gastatzen dira etxe bizitza bakoitzean, eta pentsa 8.000 mila milioi pertsona daudela munduan. Gure proiektuarekin aldaketa bat egin nahi dugu gure gizartean, eta datu hauek murriztea da gure helburua. Izan ere, denok dakigun bezala, uda honetan Espainian ur eskasi handia egon da lehortek direla-eta, beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu honen kontsumoa murriztea etorkizun on bat eraikitzeko. Horrez gain, gure egunerokotasunean ere arazo hau hauteman dugu, otorduetan adibidez, ontziak garbitzean, erabilerarik ematen ez diogun ur asko harraskatik joaten da, eta hau aurreztu eta berrerabili dezakegula ikusi dugu.

Ekosistemari, naturari eta gizarteari kalte handia egiten dio ura alferrik galtzeak; izan ere, lehengai nagusia da eta gure oinarrizko beharrak asetzeko funtsezkoa. Bestalde, gastu ekonomiko handia eragin dezake ur kopurua ez neurtzeak, fakturaren prezioak hileroko gora egitea desabantaila eta esfortzu handia delako familia askorentzat, beraz, beste puntu negatibo bat.

Sentsoredun iturri bat sortu dugu ekimen honi bultzada emateko, eta nolabait arazoa konpontzeko.

4 pertsonako talde bat gara eta arazo honi aurre egin nahi diogu elkarlanean arituz eta teknologia berriak aplikatuz.

Lagundu diezaiogun munduari elkarrekin!